

Altza

Lurazpiko aparkalekua, non?

Elizasu plazan lurazpiko aparkalekua egiteko proiektua bertan behera geratu da. Egitasmoa aurrera eramateko, beste kokapen batzuk aztertzen ari dira Udala eta Plan Komunitarioa.

Azaroan aurkeztu zuen Udalak Elizasu plazan lurazpiko aparkalekua egiteko proiektua. Hainbat bizilagun, baina, egitasmoaren kontra agertu ziren, eta erabakia Plan Komunitarioaren esku — auzotarren parte hartzea sustatzeko garatutako plana — utzi zuen Odon Elorza alkateak.

"Elizasuko bizilagunen eta auzoko gainontzeko elkarte

en iritziak bildu genituen. Kontrakoek eta aldekoek zerrenda osatu genuen; azkenean, ezezkoak nagusitu ziren eta Udalak Elizasun aparkalekurik ez egitea erabaki du", azaldu digu Plan Komunitarioko arduradun Eli Arrietak. "Kontra zeudenak pozik agertu dira erabakiarekin; aldekoen hitzetan, berriz, gauzak ez dira behar bezala azaldu", adierazi du Arrietak.

Kontrakoek arrazoiak

Etxeak erortzeko arriskua, plazako lurra arbelezkoa izanik lanak zailak izango zirela eta toki egokiagoak badirela izan ziren, besteak beste, auzotarrek aparkalekuaren kontra emandako arrazoiak. "Udal teknikariek kezka horiek uxatzeko azalpenak eman zituzten. Beraz, ez dakit benetan kezka horiek tajuzkoak ziren", dio Arrietak.

Angel Bañuelos Elizasu plazan bizi da eta ez dator bat Arrietaren iritziarekin. Bere hitzetan, plazako biztanleen %99 aparkalekuaren aurka zegoen: "Aparkaleku horrek 315 leku izango lituzke salgai. Baina, inguruetan, doako 116 toki galduko lirateke". Etxeak erortzeko arriskua ere nabarmendu du Angel Bañuelosek. Beraz, Elizasun aparkalekua ez egiteko erabakiarekin pozik dago bizilaguna. Dena dela, auzoko beste tokiren batean egitearen aldekoa da.

Beste toki batzuk

Plan Komunitarioko arduradunaren arabera, lurazpiko aparkalekua egiteko, beste kokapen batzuk aztertzen ari dira: "Nerecan eta Harria parkea aipatu dituzte orain arte; da-

Elizasuko parkean egin beharreko lanak aztertzen ari da Udala

tozen egunetan, toki gehiago pentsatuko dituzte".

Elizara doan errepedearen azpian ere egin litekeela dio Bañuelosek: "Teknikariek oso garestia zela esan zuten, baina dena da garesti, eta hor 700 kotxerentzako tokia egon liteke".

Beste lan batzuk

Aparkalekua Elizasun egiteko proiektua aurkeztu zenean, bestalde, plazako haur parkea konpontzeko lanak diru horrekin finantziatu nahi izatea egotzi zioten hainbat auzotarrek Udalari. Aparkalekua ez da bertan egingo, baina hala ere, Odon Elorzak parkea konpontzeko konpromisoa hartu duela argitu du Arrietak. Ildo honetatik, Udala plazan egin beharreko lanak aztertzen ari da. Angel Bañuelosek dioenez, "bazen garaia; plazak 20 urte ditu eta Udalak ez du inoiz haren egoerarengatik inongo kezka agertu. Haur parkea hondatuta dago eta plazako hainbat zati oso utzita dade".



Eli Gorostegi

Larratzoko aparkalekuan urtebeteko azterapena

Larratxon lurazpiko aparkalekua bukatzen ari dira. Otsailaren amaieran irekiko dute. Sei solairu ditu aparkaleku honek eta 258 autoforentzako tokia. 11.110 eta 12.900 euro arteko prezioa izango du leku bakoitzak. Alitzako biztanleek, bestalde, atzerapena salatu dute: lanek duela urtebete behar zuten bukatuta.